


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ZABALETA 43



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1917

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, bi fatxada dituena. Erdisotora du bi kaleetara gorputz aurreratu gisa, bastardea edo behe oina eta jatorrizko sei goi oin (azkena atzeraemana). Fatxadek hareharrizko harlandua konbinatzen du estaldura zeramikoarekin eta atal entokatuekin (balkoietako balaustradekin, Kolon pasealekurako galeriekin, etab.). Hormigoizko begiratokia erdiko baoetan (bikoitza Zabaletara eta sinplea Kolonera). Jatorrizko proiektu komuna Zabaleta 45ekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oin atzeraemana.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; moldekatuak; mosaikoak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta erdisotoko baoen konfigurazio bateratuarekin loturikoak barne.